

## HERRI KIROLAK IRAKASKUNTZAN

Joxean Unsain

---

La actual reforma se orienta a incluir en nuestros currículums contenidos que ofrezcan al alumnado la oportunidad de aprender lo que lees propio a su entorno socio-cultural favoreciendo su integración en él.

En este contexto, es nuestra intención trasladar al profesorado la reflexión que nos ha llevado a considerar el valor cultural de los Deportes Vascos como exponente de los valores identificables en la cultura corporal de cada época.

Los contenidos seleccionados por el profesorado de Educación Física se ha visto influenciado, indirectamente, por los materiales, instalaciones y medios de comunicación que parecen querer perpetuar la supremacía de ciertas modalidades deportivas como el fútbol y el baloncesto sobre otros tipos de actividad física como los juegos tradicionales y autóctonos que durante años se han practicado en las calles, pórticos y plazas cuando los niños y niñas aún disponían de espacios y tiempos para ello, o como el también relegado, a nivel escolar, deporte rural que hace disfrutar a un pueblo con la vivencia colectiva de sus rasgos de identidad.

La escuela no puede olvidar sus responsabilidades como agente transmisor del patrimonio cultural incluyendo la cultura del cuerpo, siendo los Juegos y Deportes Vascos los que posibilitan acceder al conocimiento vivenciado de algunos de los más internos y significativos rasgos de identidad de la Cultura Vasca.

En la ponencia que a continuación se presenta titulada "Herri Kirolak Irakaskuntzan" se reflexiona sobre las posibilidades educativas de los Deportes Vascos dentro del marco de Reforma argumentando consolidez las distintas razones por las cuales podemos llegar a ofrecer en los diferentes ciclos y etapas unidades didácticas que partiendo del área de Educación Física integren contenidos de plástica y sociales en un planteamiento interdisciplinar culturalmente rico y significativo.

A continuación adelantamos algunas de las razones que la ponencia contempla al aconsejar la inclusión de los Deportes Vascos dentro las actividades propuestas en el área de Educación Física.

\* Son actividades que evidencia un gran potencial dentro del marco socio-cultural en que está inserto el centro escolar.

\* Ofrecen una buena razón para poner en marcha una directriz de interdisciplinaridad curricular al aportar un amplio engraje de contenidos conceptuales de procedimientos y de actitudes, valores y normas pertenecientes a Sociales, Plástica y Educación Física.

\* La necesidad de material no es problemática en un número elevado y significativo de deportes y en ciertos casos el material específico y complementario puede elaborarse en los talleres de manualidades.

\* Posibilita dar a conocer nuevas formas de actividad física que el alumnado puede continuar practicando fuera del horario escolar.

Al igual que sucede con las danzas, despertar el gusto por los Deportes Vascos en las escuelas es una tarea en principio sencilla en tanto que se dispone de un buen nivel de motivación inicial entre el alumnado, el reto es para el profesorado que desde su conocimiento teórico, práctico y vivencial debe ser capaz de presentarlos de forma sugerente yendo más allá de la ejecución técnica hacia la identificación de las características culturales del Pueblo Vasco.

Ana MAKAZAGA

## SARRERA

Euskaldunon giza-multzoak, hizkuntza, folklorea, bizimoduak, eta abarri dagokionez ezaugarri bereziak erakusten dituen heinean, etnologo ugari aztergai hartu izan duen berezko kultura osatu du.

Nortasunaren adierazle diren elementu hauetatik hurbil azaltzen dira bertako jokoak eta kirolak, hau da autoktono deritzenak, eta hauek ere badute hizkuntzari eman dakioken antzeko edukin sakona.

Gauzak argitzen lagun dezake etnomotrizitate kontzeptuak, hau da, "mugimenezko iharduketan esparrua eta izaera, berauek kulturarekin eta gizarte-ingurunearekin duten erlazioaren ikuspuntutik, zeinen barnean garatu baitira", bestela esateko, gizarte-talde baten berezko joko eta kirolen multzoa.

Beraz, zalantzarik gabe esan daiteke bertako kirolak, eta bereziki pilota, sokatira eta lokotsa gure kulturaren osagarri direla, eta gure nortasuna adierazten duten heinean, harro egon gaitzake...

Aurkezten dizuegun lan honek, alde batetik, egunez-egun areagotzen ari den tradizioen galera nabariak, kasu honetan kirol tradizioenak, eragiten digun dezka biltzen du. Eta bestetik, Herri Kirolak indartzeko balio izan behar duen metodo didaktikoa gauzatzera iristeko dugun ilusioa.

Herri kirolak bizi duen momentua, benetan larria dela esan behar da. Urtetan eta urtetan gure haur eta gazteek berez eta besterik gabe egin dute kirola, inolako kanpoko pizgarri beharrik gabe. Gure herri eta hirietako jendearen topaleku eta jolas-toki ziren garai batean. Gaur egun ordea, arrunt bestelakoa da gure begien aurrean daukagun ikusmira kanpoko kirolek komunikabide indartsu eta interes ekonomiko ez txiagoez lagun dute egin duen sarrerak bere etxean bertan konbidatu bat izatera zokoratu du gure berezko kirola. Kontua da, orohar eremu guztietan eta zehazki ikastetxe eta ikastoletan egiten den kirol zerrendaren aldean, bere adierazpen-mailarik eskasenera zokoratua aurkitzen dela HERRI KIROLA, eta hori benetako boluntarioso batzuen interes eta ilusioari esker, gainera.

HERRI KIROLA ez da guretzat beste edozein kirol bezala. Kirol hau gure kultur ondarearen parte bat da, eta gainerako kirolak nola inportatuak hala bertakoak, batere mespretxatu gabe, esan daiteke gure adierazlerik garrantzitsuena bezala dela, Horregatik hain zuzen, Herri Kirola suspertu nahi izateak esan nahi du baita gure kultura eskuratzea ere.

## II. HERRI KIROLAREN HELBURU OROKORRAK

### 1. Proiektuaren helburu nagusiak

Lehen Mailako eta Bigarren Mailako Derrigorrezko Hezkuntz urratsetan, ikasleengan ondorengo gaitasunak garatzen lagun dezake Hezkuntza Fisikoan Herri Kirolak.

Ž Beren giza garapenean eta bizi kalitatearen eta osasunaren hobekuntzan Herri kirolean aritzeak dituen ondorioak ezagutu eta neurtzea. Mugimenezko iharduera mota desberdinetan aritzeko joera bereganatu eta horrek sortzen duen gozamena dastatzea.

- Bere ingurunean, eskolan, nola beste inguru batzutan, dituen premiak asetzeko bide ematen dioten iharduerak antolatu eta burutzea.

- Bere funtzioak, jabetza eta kontrola egokitu eta hobetuz, dituen eskuhartzeko aukerak areagotzea, nor bere burua saia araztera eta gainditzera behartzeko joerak garatuz.

- Norberaren gaitasuna zehatz egituratzea.

- Nork bere buruaz eta bere premiez duen ezagutzarekin bat etortzea, norberaren eta taldearen osasunerako ondorio ezkorrak dituzten ihardueren aurrean jokaera kritikoa bat hartuz, ingurugiroa errespetatuz eta bere iraupena erraztuz.

- Lortutako trebezia maila edozein izanik ere, iharduera fisikoetan eta kirol ihardueretan partaide izatea, gaitasun fisikoak eta kirol gaitasunak garatuz, lankidetasunezko eta begirunezko jakerak garatuz, eta bere komunitatearekin lotzen duten izaera autoktonoko iharduerak gauzatzeko ahalbidetzen duten harreman alderdiak hobetsiz, norberaren kultur balorentzat aitortuz.

- Kultur iharduera eta adierazpen desberdinetan herri kirolak komunikatzeko eta elkar ulertzeko bitarteko gisa duen adierazpen aberastasuna aitortu, balioetsi eta erabiltea.

- Adin hauetan horrenbesteko eragina eta erabilpena duenez, herri kirola kulturari buruz lortzen den informazioa kritikoki eta norbere buruaren jabe dela aztertzea.

Esan dezakegu beraz, borondate eta kezka honen inguruan helburu hauek finkatu behar ditugula:

1. Eskoletan herri-kirola berpiztu eta ernarazi.

2. Herri-Kirola heziketa tresna bezala erabili, Gorputz-Hezkuntza aberastu eta gure kirolaz trebetu.

3. Herri kirolaren ezagutza eskeini gaztetxoei eta aukerak bideratu kirola bidean abiatzeko.

Plan hau ordea, efektibo izan dadin, koordinada batzuen barnean kokatu behar dela uste dut:

Herri kirolaren susperdura benetakoa izatea nahi baldin badugu, iritsi behar du bere inplikazioan ez bakarrik eskola-mundura, baizik eta hedatu behar du eta bere luzapena izan ere bai, nola denbora hala gizarte-bizitzako eragin-eremu desberdinetan (komunikabide, Ekonomia, Kirol-Politika, etab.).


Horregatik bada, Herri Kirolak eskola-mundutik abiatu, eta, bere susperdurako izan ditzakeen ahalbideei garrantzi estrategiko handia ematen diegun arren, PLAN orokorrako baten parte bezala kokatu behar da proiektu hau.

Kontuan izanik proiektu hau eskola-munduaren eragin-eremuan kokatzen dela, Gorputz-Hezkuntzarako arloaren orientazio pedagogikoekin ados egon behar du eta bere gain hartu, beren eskolorduetako aplikazioan eta beren eskolaz-kanpoko orduetan ere.

Era berean, ikastetxe bakoitzaren hezkuntz proiektuan txertatua egotea izango litzateke proiektu honen bultzadarik handiena. Neurri hauek behar-beharrezkoak dira baldin eta ikastetxeko hezkuntz dinamikan txertatuko den proiektu bat nahi bada.

Eskola ezin kokatu da berez dagokion kultur-inguruetik kanpo eta gure tradiziozko jokoekiko eta sortu izan litezkeen lekuko barianteekiko hurbilketa, hedapen eta berreskuratze prozesu bat zabaldu behar du.

2. Curriculum-aren xehetasun nagusiak



III. EUSKAL JOKO ETA KIROL EN SAILKAPENA

Euskal kirol en sailkapen ohia, jolas en jatorrian oinarrituta dago. Iru jatorri nagusi:

- Lan bidean oinarritutakoak
- Gudan oinarritutakoak
- Erligio eta jai en oinarritutakoak

Euskal herriko modalitate gehienak federazio en arloan kokatuak daude. Iku dezagun nola:

- Atletismoa: palanka.
- Tiro olimpikoa: blankolariak
- Boloak: boloak eta toka
- Arrauna: estropadak
- Herri kirol federakuntza: Aizkolariak
- Sokatira
- Gizon proba
- Korrikalariak
- Lokotx apustua
- Iparraldeko jolasak
- Idi proba
- Harrijasotzaileak
- Segalariak
- Proba nahastuak
- Txingak

Euskal Kirol en ezaugarria:

1. Ekonomi edo lan jatorria duten kirol iharduerak
  - Aizkolariak: Erakustaldi mailan, hala Euskadin nola kanpean.
  - Harrijasotzaileak: Erakustaldi mailan, hala Euskadin nola kanpoan.
- ž Txingak: Beste zenbait kirol motarekin egiten den proba (Pentlatona, etab).
- ž Segalariak: Gero eta magatuagoa, dituen ezaugarriengatik.
  - Idi-dema: Hainbat herri proba, batez ere Bizkaian.
  - Estropadak: Gero eta zabalduagoak eta onartuagoak.
  - Korrikalariak: Herri probatzat hartzen dira, noiz behinka apustuak, markak, etab. sortzen badira ere.

2. Guda eta militar inguruan sortutako kirol iharduerak
  - Palankalariak: Gaur egun oso noiz behinka egiten dira.
  - Blankolariak: Tiro mota desberdinek ordezkatu dute.
  - Korrikalariak: Gaur egun ATLETISMOaren barruan erabat egituratua.
3. Jolasa eta festatik sortutako kirol iharduerak.
  - Boloak: Maila egokian berregituratu dira.
  - Toka: Pixkanaka birsortzen ari da ia Euskal Herri osoan.
  - Ahari-talka: Beheraka doan iharduera eta oso mugatua.
  - Oilar-joko: Gutxi ezagutu eta oso noiz behinka egiten da.
  - Antzar-jokoa: Egun jakin batetara mugatua, Bizkaian.
  - Pilota: Krisialdi luze baten ondoren, une hauetan arrazoi desberdinengatik gero eta gorago doana.

Ikusten denez, zenbait proba leku zehatz batetara mugatu da, eta horretarako bi arrazoi nagusi daudela esan genezake:

1. Joan den mendeetako euskal nekazal giroko bizimodu industri eta hiritar giroko bizimodu bihurtu da, beste bizitzeko era, kultura, jolas eta aisialdirako bideak etab. aukeratuz.
2. Lanerako ohizko tresnak ziren aizkora, atxurra, arrauna, sega, barra, zama eramateko eta errestra lanerako abereak etab. Tekniko, mekaniko eta sofistikatuago direnengatik aldatzea.

Guzti horren eraginez bertako hainbat kirol galdu egin da, adibidez barra jaurtitzea, eta beste hainbat desagertzeko zorian geratu dira.

Beste hainbat kirolek iraun egin dute, girotuak zeudelako, hainbat fenomeno agertu delako (Perurena, Saralegi, Mindegia, Erasun) edota betidanik euskaldunak joko eta apusturako izan duen zaletasunagatik.

IV. HEZKUNTZA-ERREFORMA ETA TRADIZIOZKO JOKOAK

Abiarazten ari den hezkuntza-erreformak, garrantziko funtsa ematen die jokoei hezkuntza-prozesuaren barruan. Jokoen multzoa eta joko eta kirolena, Gorputz Hezkuntzan, behin eta berriz azaltzen da M.E.C. lurralderako landu den oinarriko curriculum-diseinuan. (Pentsatzekoa da, beraz, E.A.E.rako herri jokoen presentzia garrantzikoa izango dela).

Lehen Hezkuntzan, jokoen multzoaren barruan zehazten da:

*Ekintzak, kontzeptuak eta printzipioak*

— “Jokoa gizarte eta kultur fenomeno gisa”.

\* Ingurunetik hurbilenean jokoan aritzeko eta kirol ihardueretarako baliabideak.

\* Herri joko tradiziozkoak.

*Prozedurak:*

– ‘Herri joko tradiziozkoak eta beraien praktikari buruzko informazio bilketa’.

*Orientabide Zehatzak.*

Eska daitekeen mugimendu edo praktika mailak, besteen lekuan jartzeko gai izatea eskatzen duen elementu gisa, trataera, sekuentzia eskatzen du. Horrela:

- Berezko jolasa eta jolas sinplea; etapa honetako lehen eta bigarren zikloko forma ludikoak izan daitezke.

- Jolas arautua, autoktonoa, GUREA, tradizionala edo kirola izan daiteke etapa honetako azken zikloko forma nagusiak.

sia. Horien helburu nagusia, inguruko ondasun kulturala osatzen duten kirolen azerbo amankomuna izatea da.

### **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, joko eta kirolen multzoaren barman zehazten da**

*Ekintzak, kontzeptuak eta printzipioak:*

- 'Kirola kultur eta gizarte fenomeno gisa. Bertako joko eta kirol tradiziozkoak'.

Bereziki baliagarriak dira eskolan. Orokorrean, zailtasun handiagoa izango da lanean oinarrituriko jatorria duten jokoak aplikatzerakoan, erlijio eta festazko jatorria dutenek, aldiz, ia berehalako aplikazioa izango dute.

Bertako kirolak inkorporatzeko lehen fase honetan, eta eskaintzen digun erraztasunagatik, **pilotak** izan behar luke barne sartuko den lehena.

*Prozedurak:*

- 'Bertako kirol eta jokoen praktika'

*Jarrerak, baloreak eta arauak:*

- 'Bertako joko eta kirolak, komunitatearen kultur ondarearen zati eta beronekiko lotura gisa, baloratzea'.

Argi dago, beraz, eskola-komunitateak bertako jokoak eskolan inkorporatzeko duen kezka. Azken finean, hezkuntza-bizitza bere ingurunekeo gizarte eta kultur bizitzari egokitzea besterik ez da.

*Orientabide zehatzak*

Kirol autoktonoetarako orientabidea: gizarteratzeko faktoreak eta gizartearen ondare kolektiboan garrantzirik izan eta, hortaz, bertako kideak ezinbestean ikasi eta preziatu behar duten jolas edo kirol bat praktikatzearen ondoriozko gizarte eta kultur balioaren azterketa dira nagusi.

Beraz, ezinbestekotzat iruditzen zaigu Hezkuntzaren esparruan lehenbailehen kokatzea gure Herri kirola. Urte askotan gure artean indartsu iraun duen Herri kirola mundu interesgarri eta herrikoi hori, nolabait gure umeen buru bihotzean txertatu nahi genuke. Jakin ditzatela gure aurrekoen ohi-turak, jolas moetak, historia eta abar.

HITZ GUTXITAN ESATEKO, HERRI KIROLAREKIN LORTU NAHI DUGUNA ZERA DA: *SUSPERTU ETA ERNARAZI.*

## **V. EUSKAL JOKOAK ESKOLAN APLIKATZEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK**

Ezaguna da Herri kirolak joko bat eskolaratze prozesuan eta bere aplikapenean izan duen arrakasta. PILOTA hain zuzen. Orokorrean gure umeek gustora hartzen duten esperientzia da. Arrazoiak hain bat dira, baina, besteak beste, nagusiki ondorengoak azpimarratuko genituzke:

### **\* Aniztasuna**

Aniztasuna hasieran elementu pertsonal eta sozial gisa onartu eta baloratzeko intentzionalitate argia betetzen laguntzen duten iharduerak bultzatzen ditu; iharduera *irekiak* eta ez *baztertzailak* proposatzen dira.

Ez da homogeneotasuna eskaintzen taldekatzeko irizpide orokor gisa, nahiz eta puntualki, egoeraren baten baliagarria izan daitekeen. Ikasleagoak taldeketetan gizarte heterogeneotasunaren sinboloa ikuste du, baina alde berean ikaskuntzetan eboluzio logikoa eta bere nortasun globalaren garapena ziurtatzen zaiolarik.

### **\* Hezkidetzak:**

Aurreko puntuarekin zuzenean erlazionaturik dagoena da, baina aipamen berezia egitea beharrezkotzat iruditzen zaigu. Jakina da Euskal Joko gehienak gizonezkoen eremutat kontsideratu izan direla betidanik; emakumezkoek ez zaie utzi inolako paperik hartzen. Oraindik gaur egun, oso arrarotzat hartuko genuke emakumezkoen bat Herri Kiroletako txapelketa batean lehian ikusiko bagenu. Konkretuki ikaspilotarentzat ezin bestekoa da sexu-berdintasunean hezitzea; sexu aniztasuna Euskal Pilotan eta kirolatan integratzea, hau da, ume gehienei zabaltzea eskolan.

### **\* Interdisziplinarra:**

Herri kirolak irakaskuntzan ez du bakarrik Gorputz Hezkuntza arloa bakarrik jorratu behar, baizik Plastika eta Gizarte arloak ere.

- Ikasleek saio didaktikoak gara ditzaten, materiala erai-kiko dute. Herri kirol tailerretan ikasiko dute. -Plastikako irakaslearen laguntzaz- pilotak, palak, xistera, txingak, gizon probarako gurrpilak, lokots edo egurrak, beloak, Arto zakuak...

- Aldi berean, Gizarteko arloko irakasleak Euskal Herriko kirolen historia azalduko du. Aukeran dituen baliobideak erabiliz, jatorria, modalitateak eta abar umei irakatsiko die.

- Esperientziak esaten digunez, proiektuaren inguruan arlo ezberdinetako irakasleak murginduz gero, Ikasleentzat EUSKAL HERRIKO KIROLAK gai garrantzitsua bilakatzen da, esanguratsuagoa.

### **\* Ludikoa:**

Iharduera ludikoen nagusitasuna ariketa fisikoaren erabilpen mekanizista da nagusiki askotan. Hemen hartu nahi den ikuspegia joko eta kirol desberdinek eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea ahalmen fisiko, hartzaile eta koordinatzaileak lantzeko bide gisa.

Jokoa erabiltzearen garrantzia oinarritzko metodologi baliabide gisa. *Ahalmen* eta *trebetasunak* bere inguruan geratzen dira.

Orokorrean gure kirolak ere, kooperazio eta konpetizio egoeretan rol edo funtzio desberdinak har ditzakete, kanpoko arauak lagungarriak izan arren.

VI. TRATAERA METODOLOGIKOAREN ETA EDUKINEN SEKUENTZIAZIOEN IRIZPIDEA (Pilota adibde hartuta). \* Baliogarria izango litzatekeela uste dut orokorrean

I N T U I T I B O A K	METODO INTUITIBOAK		METODO SINTETIKOAK	
	OROKORREAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurra "gizontxo" da (Kontzeptu murritzalea)</li> <li>- Helduarekiko ditu:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Egitura psikologiko berdinak</li> <li>* Funzionamendu ezberdina</li> </ul> </li> <li>- Bere ikasmena S eta R (Watson) elkarkezak erantzten du</li> <li>- Zere inaktik abiatzen da: bere organismoa orriakde zuria da, "Kutxa hutsa"</li> <li>- Ezagupen mota guztiak kanpotik datozko</li> <li>* Aurrerapena, piskanaka osotasunera eramaten duten funtzio jakinen bitartekoa da (gauza zehatzetatik zuzunetatara doan prozesu lineala).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurra "gizakumea" da (kontzeptu orohartzalea)</li> <li>- Helduarekiko ditu:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Egitura psikologiko ezberdinak</li> <li>* Funzionamendu berbera</li> </ul> </li> <li>- Ikaskuntza asimilazioaren teoriak erantzten du (Piaget)</li> <li>* Norbanakoaren lehenengo egituratan du euskaria.</li> <li>* Ezagupenen jatorria norbanakoaren barnean dago</li> <li>* Aurrerapena, aurriz errotuta dauden eta artan-artan hiltzen diren lehenengo egituren barantolaketak da (Gauza zehatzetara iristeko orokortetarik hasten den prozesu dialektikoa).</li> </ul>	
PILOTAREN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pilota praktikan, haurrak mekanikaren arauak agindutako mugimenduak egiten ditu:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Bakteriaris</li> <li>* Bekturris da</li> <li>* Ez da harriz bereizteko gauza</li> <li>* Hutsagiteak ditu: akatsak eta eskasiak dauka ("eskasi" pedagogia)</li> </ul> </li> <li>- Pertzepzioi esker errealitate kopla daiteke</li> <li>- Kasualitate zuzenak lotzen ditu pertzepzioak eta mugimendua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pilota praktikan, haurrak, norbanakoaren osotasune eskatzen duen ekintza motorea burutzen du:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Simbiosiak jaxaten ditu</li> <li>* Oreakaren "funtsezko paradoxa" konpondu behar du</li> <li>* Ez die ekintzak sorrarazitzeko desoreketi aurrea hartzen</li> <li>* Portazarako fase jakin batean aurkitzen da</li> </ul> </li> <li>- Pertzepzioi esker errealitate asimila daiteke</li> <li>- Pertzepzioen eta gorputz-eskema jakin batera eramaten duen ekintza motorearen arteko dialektika ezartzen da</li> </ul>		
PILOTAREN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurra hartzailea da mugimendu bat burutu ahal izan aurretik, izuzi eta ulertu egin behar du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Haurra abere da: emateko egin behar du, ulertuaren ekintzarako beharrezkoak diren oinarrizkoak sartu ahal izan daitezke</li> </ul>		
PILOTAREN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarritziko gorputz-hezikuntzaren aldekoak. Funtsezko gaitasunen garapena lehenik, eta sipatu gaitasunak, ondoren, kirol praktikari aplikatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirol iherdueren praktika jakin batzuen jarraitzaileak: mugimendu-gaitasun batek bere aplikazio-edearen arabera bakarrik du zentzua (Kirol iherduera jakin bat)</li> </ul>		

P I L O T A R E K I R O L A K	METODO INTUITIBOAK		METODO SINTETIKOAK	
	OROKORREAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teknikak kontabilizatu behar dira:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Hebeio banatzeko</li> <li>* honela hierarkizatzen:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Oinarritziko teknikak: simplea dena</li> <li>b) Teknika lunduak: konplexu dena</li> </ul> </li> </ul> </li> <li>- Kasu honetan, teknika:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Hezikuntzaren eskaintzen du</li> <li>* Lehen oinarrizko didaktikoa da</li> <li>* Denboragabata da</li> <li>* Inpartsonala da</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teknikak multzoan hartzen dituzte:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Aidiagaiak zehaztu ahal izateko</li> <li>* Egitura bat formulatu ahal izateko</li> </ul> </li> <li>- Kasu honetan, teknika:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Haurrak binturkitzen du</li> <li>* Ikaskuntzaren emaitza da</li> <li>* Bilakeraerakoa da</li> <li>* Personalizatun dago ("estiloa").</li> </ul> </li> </ul>	
PILOTAREN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasketa ("maisu") zera da:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Erreproduktzailea</li> <li>* Ikasleak bere jakintza transmititzeko ardura duen pertsona</li> </ul> </li> <li>- Ariketa bat aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, amiguko:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Bere teknika adierazten eta frogatzen du</li> <li>* Errore kopiatzera bultzatzen du</li> <li>* Ikaslearen ulermena eskatzen du</li> <li>* Ikaslearen ulermena eskatzen du</li> </ul> </li> <li>- Emaitzari ematen zaio garrantzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasle edo maisua zera da:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Kontabilizatzailea, antolatzailea</li> <li>* Ikasleak aialdatzeko, beronek mugimena barantolatzen duen pertsona</li> </ul> </li> <li>- Egoera pedagogiko bat aurkeztu eta erantzunen eraldaketari bidea emateko, maisuak:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Buretu beharrena lana adierazi (eta behar izanez gero, frogatu) egiten du</li> <li>* Pertsonaren aurkikuntzak sustatzen ditu.</li> <li>* Ikaslearen arreta erakartzen du</li> </ul> </li> <li>- Bitartekoei ematen zaio garrantzia</li> </ul>		
PILOTAREN	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ariketak ondoko ezaugarriak dituzte:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Tokirikaren beste zati bat edo beste teknika bat aurkezteko aldetu egiten dira.</li> <li>* Estereotipoak ezartzeko joera dute (automatismo zurrunkak)</li> </ul> </li> <li>- Lehiaketa da ikaskuntzaren helburua: haurdunen lehiaketa da haurri aplikatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egoera pedagogikoak ondoko ezaugarriak dituzte:                     <ul style="list-style-type: none"> <li>* Arazo motore bat aurkezten dute iherduaren egiturarekin eta ekintza motorearen egiturarekin lotuz</li> <li>* Mugimendu-erantzunak ahalik eta gehien lutzeko, antzak dira</li> <li>* Automatismo malguki eratzeko joera dute</li> </ul> </li> <li>- Lehiaketa ikasteko bitarteko bat da: haurri egokitzen zaie (forma eta arautegia)</li> <li>- Jolasak denborapasa baino ez dira: asialdiaren amaieran egiten dira.</li> </ul>		

PILOTAREN IKAS-IRAKATS PROZESUA

Jokalari batentzat pilotan jokatzeko ikastea egun batetik bestera gertatzen den zerbait ez den bezala, irakasle-entrenatzaile batentzat ere, pilotan jokatzeko irakastea ez da egun bateko lana. Honekin adierazi nahi duguna zera da: pilota ikasketa eta irakasketa elkarrekin doazela eta urrats edo fase ezberdinak dituen prozesu luze bat dela.

Beraz, **prozesu bat eta berdina** dela esaterakoan alde batetik azpimarratzen da urrats ugari eta ezberdinak dituen gertaera bat dela, eta bestetik, ikasle-jokalariarekin helburuak eta irakasle-entrenatzailearen helburuak berdina direla.

Jarraian, jokalaria ikasketa prozesua aztertu eta definitzeaz gain irakasle-entrenatzailearen egitekoa zehasten saiatuko gara, nahiko laburki bada ere.

Azterketa hau edo Prozesuaren definizioa zehazteko behaketa batetan oinarrituko gara. Egoera bat planteatuko dugu beraz, eta beraz ikertzen ahaleginduko gara. Egoera honako hau da: Inoiz pilotan jokatu ez duten bi jokalaria elkarrenaurkako partidu bat jokatzeko.

Aipatutako egoera honen behaketa-azterketaren bitartez jakin ahal izango dugu zeintzuk diren jokalariek dituzten arazorik larrienak eta premia-koenak, eta ondorioz irakasleak eman diezaikeen irtenbideak.

Pilotaren ikas-irakats prozesuan, ikuspegi orokor batetik begiratuta, hiru fase ezberdin nabarmentzen ditugu:

1. Jokalaria eta Pilota
2. Jokalaria eta Aurkakoa
3. Jokalaria eta Laguna

1. Jokalaria eta Pilota

Aurrerago planteatuako egoeraren behaketa oinarriturik, nabarmenki ikus daiteke jokalariek pilotarekin dutela beraien lehenengo arazoa, ez bait dute inolaz ere pilota menperatzeko gaitasunik.

Beraz, lehenengo fase honetako helburu nagusia ikasle nahiz irakaslearentzat jokalaria eta pilotaren arteko erlazioa garatzea izango da, pilota ahalik eta hobekien menperatzea, arlo teknikoak lantzea alegia.

Helburu nagusi hau pixkanaka zehaztuz, jokalaria lehenengo pilota jotzen ikasi behar du, jotzeko gaitasuna menperatu bezain laister pilotari altuera eman, txapa gainditu eta pilota kantxa barruan sartu ahal izateko.

Gutxieneko helburu hauek lortu bezain laister, pilotari norabidea ematea da ondorengo urratsa, kantxan pilota nahi den tokira bidali ahal izateko geroz eta zehastasun eta zakontasun handiagoarekin.

Lehenengo fase honetako azken urratsa, jokalaria aldeko egoera batetan pilotarekin aukera ezberdinak gauzatzeko gaitasuna ematean datza. Horrela, pilota nahi duen tokira botatzeko gain nahi duen moduan bota ahal izango bait du. Toki berdineran modu ezberdinetan botatzeko gai izango da.

2. Jokalaria eta Aurkakoa

Hasieran planteatutako egoera itzuliz, baina jokalariek gutxieneko maila tekniko bat eskuratu dutela suposatuz, jokalaria pilota jo eta kantxan sartzeko gai direnean, beste arazo batekin aurkitzen dira bapatean aurre; AURKAKOA.

<b>FASEAK</b> HELBURU OROKORRAK HELBURU ESPEZIFIKOAK GARATU BEHARREKO GAITASUN TEKNIKO-TAKTIKOAK	<b>I- JOKALARIA ETA PILOTA</b>			
	JOKALARI-PILOTA erlazioa garatzea: arlo TEKNIKOAK			
	1.- Pilota jotzea	2.1.- Txapa gainditzea 2.2.- Pilota kantxan sartzea	3.- Kantxa barruan HELBURUAK lortzea	4.- Ekiniza ezberdin ugari egiteko aukera
* Pilota jotzeko gaitasuna menperatzea * Modu ezberdin guztietan eta era guztietako baldintzetan pilota JOTZEA efikaziaz.		* Honako parametro hauek menperatzea: ALTUEIRA NORABIDEA ZEHASTASUNA ZAKONTASUNA POTENTZIA * Peloteoa mantentzea aldeko nahiz aurkako baldintzetako egoeretan		

<b>FASEAK</b> HELBURU OROKORRAK HELBURU ESPEZIFIKOAK GARATU BEHARREKO GAITASUN TEKNIKO-TAKTIKOAK	<b>I- JOKALARIA ETA PILOTA</b>				<b>II- JOKALARIA ETA AURKAKOAK</b>	
	JOKALARI-PILOTA erlazioa garatzea: arlo TEKNIKOAK				JOKU INTENTZIO bat garatzea: arlo TEKNIKO-TAKTIKOAK	
	1.- Pilota jotzea	2.1.- Txapa gainditzea 2.2.- Pilota kantxan sartzea	3.- Kantxa barruan HELBURUAK lortzea	4.- Ekiniza ezberdin ugari egiteko aukera	Jokalari eta aurkakoaren arteko erlazioa garatzea: * Aurkako aztertzea * Taktika bat aukeratzea	ESPAZIOA-ren erabilera garatzea: * Okupatu beharrezkoa * Erabili beharrezkoa * Sortu eta iztatu beharrezkoa
* Pilota jotzeko gaitasuna menperatzea * Modu ezberdin guztietan eta era guztietako baldintzetan pilota JOTZEA efikaziaz.		* Honako parametro hauek menperatzea: ALTUEIRA NORABIDEA ZEHASTASUNA ZAKONTASUNA POTENTZIA * Aldeko egoera batetan pilotarekin aukera ezberdinak egiteko gaitasuna * Peloteoa mantentzea aldeko nahiz aurkako baldintzetako egoeretan		* Aurkakoaren proiektus eta ezaugarriak kontutan hartzea. * Gure proiektus egoera eta aurkako bakoitzaren indulu edo/eta inposatzea. * Peloteoa edozein baldintzako egoeretan mantentzea eta momentu egokianean apurtzea.		

<b>FASEAK</b> HELBURU OROKORRAK HELBURU ESPEZIFIKOAK GARATU BEHARREKO GAITASUN TEKNIKO-TAKTIKOAK	<b>I- JOKALARIA ETA PILOTA</b>				<b>II- JOKALARIA ETA AURKAKOAK</b>		<b>III- JOKALARIA ETA LAGUNA</b>
	JOKALARI-PILOTA erlazioa garatzea: arlo TEKNIKOAK				JOKU INTENTZIO bat garatzea: arlo TEKNIKO-TAKTIKOAK		Joleldidearekin komunikazio erlazio bat garatzea
	1.- Pilota jotzea	2.1.- Txapa gainditzea 2.2.- Pilota kantxan sartzea	3.- Kantxa barruan HELBURUAK lortzea	4.- Ekiniza ezberdin ugari egiteko aukera	Jokalari eta aurkakoaren arteko erlazioa garatzea: * Aurkako aztertzea * Taktika bat aukeratzea	ESPAZIOA-ren erabilera garatzea: * Okupatu beharrezkoa * Erabili beharrezkoa * Sortu eta iztatu beharrezkoa	Lagunarekin kooperatu honako arlo hauein banaketan: * espazioa * lana * erantzukizuna
* Pilota jotzeko gaitasuna menperatzea * Modu ezberdin guztietan eta era guztietako baldintzetan pilota JOTZEA efikaziaz.		* Honako parametro hauek menperatzea: ALTUEIRA NORABIDEA ZEHASTASUNA ZAKONTASUNA POTENTZIA * Aldeko egoera batetan pilotarekin aukera ezberdinak egiteko gaitasuna * Peloteoa mantentzea aldeko nahiz aurkako baldintzetako egoeretan		* Aurkakoaren proiektus eta ezaugarriak kontutan hartzea. * Gure proiektus egoera eta aurkako bakoitzaren indulu edo/eta inposatzea. * Peloteoa edozein baldintzako egoeretan mantentzea eta momentu egokianean apurtzea.		* Kidearekin batera bazala rekolokatu ahalak eta espazio eta trakektoria gehien babesteko. * Kidearekin delentza eta stake lanak banaltzea * Tantu nahiz partiku bakoitzaren erantzukizuna joleldidearekin banatzea.	

Jokalariak konturatzen da pilota jo eta kantxan sartzearekin ez dela nahiko, tantoa irabazteko aurkako gaitasun beharra duela gainera.

Horrela bada, bigarren fase honetako helburu nagusia jokalarirengan aurkakoak gaitasun JOKU INTENTZIO baten garapena izango da. Jokalariaren maila teknikoari erabilgarritasun taktikoa ematea alegia.

Jokalariak bi modutan gaitasun ahal izango du aurkakoak:

1. Espazioren erabilera garatuz
2. Aurkakoaren ezaugarrietaz baliatuz

Lehenengo kasuan pilota aurkakoak ez dagoen tokira bidaltzen ikasteaz gain, espazioa modu egokian okupatzea eta erabiltzea dira helburuak.

Bigarrean berriz, aurkakoaren ezaugarrietaz baliatzeak aurkakoak aztertzea eta barau gaitasun taktika bat aurkeratzea suposatzen du.

### 3. Jokalaria eta laguna

Behaketarekin jarraituz, joko maila berdineko beste bi jokalarik gehiago jokoan sartuz gero, bi biren aurkako partidu bat jokatzeko haten direla suposatuz, jokalariek egoera berri baten aurrean aurkitzen dira, hau da; joleldidearen laguntzareki.

Jokalariak beraz, orain arte ezezaguna zuen lagun batekin aurkitzen da, eta bien artean bikote bat osatu beharra dute aurkakoak gaitasun ahal izateko. Horrela bada, ezinbestekoa izango da lagunarekin komunikazio erlazio bat garatzea elkarrenarteko ulermena ahalik eta hoberean gertatzeko, hau izango delarik hirugarren fase honetako helburu nagusia.

Lagunarekin komunikazio erlazio bat garatzeak, besteak beste bien arteko kooperazio edo elkarlaguntza bat suposatzen du. Kooperazio bat espazioren banaketan, lana edo eginbeharraren banaketan eta erantzukizunaren banaketan.

## VII. PELOTAREN PROIEKTU CURRICULARRAREN PLAN-GINTZA OROKORRA DERRIGORREZKO HEZKUNTZAN

Ondoren ikusiko dugun adin banaketa hori ez da inoiz ere erabatekoa bezala hartu behar, askatasun handiarekin baizik, beti ikasleen ikasteko erritmo pertsonal eta berezi hori errespetatuz.

Aipatu beharrekoa da baita ere, 'PILOTA' hezkuntz tresna bat bezala erabili nahi badugu, Gorputz Hezkuntzaren edo Soinetaren baliabideak berak hezkuntza hezitzaile bilatuko duela.

Azkenik esan, plangintza adibide hauek nahiko orokorki hartuak izan direla, gero irakasle bakoitzak bere inguru, egoera eta aukeren arabera borobil ditzan.

Eta hasteko:

### 1. IKASPILOTAREN PLANGINTZA OROKORRA

EDUKIAK	PROZEDURAK
1.- Historia eta Antropologia 2.- Kualitate Motore eta Fisikoak 3.- Hasterako Urratsak 4.- Joko eta Txapelketak 5.- Tailerrak	1.- Pilota espazio eta denbora batean kokatu, taldekako ikasketa bat eginez laguntza giroan 2.- Mugimendu orokorraren asimilazioa erraztu jokoan bitartez. 3.- Mugimendu mota berriak sortzeko ikaslearen harrera piztu
GAITASUNAK - TREBETASUNAK	BALIABIDE - JARRERAK
1.- Pilotaren sorrera eta bilakaera ikasi: - Espazioa eta denbora mugimenduetan lantzea - Sintetizatu - Talde partaidetza 2.- Mugimendu orokorrak asimilatu 3.- Mugimendua antolatuz 4.- Mugimendu berriak sortuz 5.- Mugimendu egokiak erabili	1.- GOZAMENA:   .- Osasuna .- Alaitasuna .- Jokoa .- etab. 2.- ASKATASUNA: - Nortasuna .- Berazkotasuna .- Independentzia .- Ardura .- Kermena 3.- HARREMANA: - Irrekitasuna .- Lagunartea .- Zinezkotasuna .- Errespetua

## ADIBIDEA: HAUR HEZKUNTZAN (4-6 urte)

### 1. Ikaspilotaren helburuak:

- 1.1. "Pilota" jolasa haur iharduera ohizko bezala ezagutzeara.
- 1.2. Ezagutu eta bizi jolasaren eboluzioa adinaren arabera, mugimendu korronte garrantzikoenei jarraituz.
- 1.3. Hezkuntza bitarteko bezala jolasaren aukerak ezagutu.
- 1.4. Egoera ludikoek sortzen duten psikomotrizitate dinamika balioztatuz eta aplikatu.

### 2. Edukin motak:

- Gertakari, kontzeptu eta printzipioak:
  - \* Espazioaz jabetzeko gaitasuna eta norabidetasuna
  - \* Koordinazio abildadeak
  - \* Pilota-jokoak
  - \* Historia (Ipuinen bitartez)
- Prozedurak:
  - \* Pilotalekuko (kantxako) espazioaren arabera iharduerak burutzea, norabide desberdinetan mugituz eta desberdintasunak hatzemanaz.
  - \* Mugimendu arin eta astunarekin loturiko bi abildade lantzea xede duten iharduerak pilotaz baliatuz burutzea.
  - \* Pilotarekin jokoak burutzea.

\* Umearen arretoa eta gogoia piztu pilotarekiko, pertsonaia erakargarri baten bidez, ipuin moduan ezagutzera emanez.

• Jarrera, balio eta arauak:

- \* Espazio harremanak eta hauek kantxan norberaren kokapenerako duten garrantzia.
- \* Koordinazio iharduerak ezagutu eta balioestea.
- \* Pilota-jokoak balioestea.

2.1. Helburu didaktikoen definizioa:

- \* Espazio harremanak ezagutu eta kantxan kokatzen jakitea.
- \* Lateralitate ezagupenaren arabera zehaztasunez mugitzea kantxan barrena.
- \* Mugimendu zabaleko bi abildade burutzea.
- \* Mugimendu xeheko bi abildade burutzea.
- \* Adin horri berezkoak zaizkion bereizkuntzak egitea.

### 3. Irakasteko-ikasteko ihardunak:

3.1. Saioa:

3.1.1. Edukinen definizioa eta helburuak:

a) Kontzeptuak:

- \* Espazioaz jabetzeko gaitasuna eta norabidetasuna.
- \* Pilota-jokoak.

b) Prozedurak:

- \* Lerroan dauden objektuak (pilotak) hatzematuko iharduerak burutzea.
- \* Pilotekin ikusmen-jarripenezko iharduerak burutzea.
- \* Irudimenezko espazio batetan trazaketak egitea.
- \* Pilota-joko bat burutzea.

d) Jarrerak:

- \* Espazioaz jabetzeko gaitasunak balioestea.

3.1.2. Orientabide metodologikoak:

Oharmen-gaitasun desberdinen aurkikuntzan sakontzea.

3.1.3. Ihardueren deskribapena:

### 1. IHARDUERA

Norberaren simetria bertikalaren aurkikuntza.

- Kanpoko erreferentzia bertikalak bilatzea: horma estekaguneetako angeluak, ezkerreko hormaren eskalak, piboteak... e.a.
- Bizkarrezurraren eta zangoen bertikalitasunaz ohartzea.
- Pilota botearen bertikalitasunaz ohartzea.
- Beso, enbor eta buruarekin mugimendu simetrikoak egitea, lerroan jarrita, eta pilota esku batetik bestera pasatuz. Besoen pronazioa eta supinazio mugimenduen.

Iharduera Alternatiboak: Iharduerak gaitasunen arabera burutzea. Mugimendua errazten duten atalek eskuhartuz.

## IX. ERABILITAKO LAN-METODOLOGIA (Soin Hezkuntzan)

### 1.1.1. fasea: "PROIEKTUA EZAGUTARAZI"

Deialdi orokor baten bidez Gipuzkoako ikastetxe guztietara iragarri dira Ikaspilota Proiektuaren xehetasunak.

Ondoren, deialdiaren erantzunak jaso bezain laister, zentru bakoitzeko zuzendari pedagogiko eta Gorputz

Hezkuntzako irakaslearekin bilerak egin dira Ikaspilotarekiko argibideak sakonago aztertzeko.

### 1.2.2. fasea: "IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA"

Pilotaren plangintza agertzearekin batera, berehala datoz irakasleen eskakizunak eta kezkek. Alde batetik, garbi utzi behar diegu, proiektu eta gai honen emaila eta mezulari zuzenak, beraiek direla. Bakoitza bere kalsean eta bere ikasleekin. Ikastetxeko programaketan eta kurrikulunean txertatuz.

Horretarako jarraipen lan dezentea egin behar izan dugu, eta lan hau, epe motzekoa izango ez delarik gainera. Gure aurreneko bisita egin ondoren, beharrezkoa ikusten dugu, irakasleen erreziklaia, beraz, eta honetarako emen behar diren ikastarotxoak emanez. Era horretan, ikastetxe bakoitzak autonomia osoa lortuko du gai honen inguruan. Kanpoko entrenatzaile edo espezialisten dependentziak ahaztuaz.

### 1.3.3. fasea: "IKASPILOTAREN GARAPENA IKASTETXEETAN"

Irakasleentzat ikastaroak bukatu bezain laster, Ikaspilotaren unitate didaktikoen adaptamenak zentruan burutzea izango da azken iharduera.

Komenigarria litzateke ere, ikastola eta eskoletan girotze kanpainak antolatzea Pilotarekiko sensibilizazio areagotzeko.

## 2. PILOTAGINTZA PLASTIKAN

### 2.1. Arduradunen prestaketa:

Ikasle edo andereinoa bera da gure bitartekorik nagusiena plangintza honen mezua ikasleengana hurbildu eta ikastolaren aurrean landu ahal izateko. Horregatik ardura berezia eskeini diogu arlo honi, mintegiak burutuz.

Ikastaro hauek bi helguru izan dituzte: ikasmaterial erabiltzea eta geletako programazioak egiteko laguntza eskaintzea. Ikastaro hauek, beraz, Tailer edo Plastika arloaz arduratzen ari den edo ezagutu nahi duen irakaslearengan pentsatuz antolatu dira, baina ikastetxeko curriculum proiektuaz arduratzen den irakaslearentzat ere probetxugarria izan daitekeela uste dugu.

Ikastaro hauek bi fase dituzte:

- Formakuntza teorioko-praktikoa
- Ikasleekiko praktika

Formakuntza arloan gai hauek bereizten dira:

- Tailerren Helburua eta Metodologia eskolan eta denbora librean
- Lan tresnaren eta materialaren ezaugarri nagusiak
- Oinarrizko teknikak
- Errekurtsoak
- Erabilpena
- Aurre prebentzioak
- Eskola edo denbora liberako 'Tailer' diseinua

### 3. "Jo Pilota" KANPAINA ESKOLETAN

Lan honek ikastetxe barruan burutzen diren zenbait kirol ekitaldi osatzea suposatzen du. Horretarako irakasleen lana errazteko eta pilota giroa hobegotzeko zeresan handikoa da ikasleen barrera.

Orain artean girotze prozesu hau hurbiletik jarraitu ez denez, eskolarteko eta urteko girotze-txapelketa motak beharrezkoak ikusten dira.

Urtean behingoz gutxienez antolatu beharra eskola bakoitzean hain motibatzaile den ekintza desberdinez osatu-

tako egitarau hau (pilota eguna, bideo emanaldi, pilotari ospetsuen gertuko ezagutzea, material erakusketa...). Beti ere protagonismo parte handi bat ikasle pilotarietara emanez, erakargarriak izan daitezten ekintza hauek. Eskola bakoitzeko jolas edo denbora librean oinarritu.

## 4. ESKOLARTEKO TOPAKETAK

Udaberria eta udara iristean eta ikasturtearen azken trimestrean, urtero burutu ohi dugun ekintza puntualea etorriko zaigu: Eskolarteko Gaztetxoaren Topaketa.

IKASPILOTA proiektuak urteko ekintza nagusien artean Eskolako "Pilotari Gaztetxoaren Topaketa"k ospatu ditu Apirila, Maiatza, Ekaina eta Azaroan zehar.

Pilotaren joko eta ezaugarri nagusiak ezagutu eta lantzeko frogak ezberdinak egiten ditugu: bainan banako jokoak, binakako jokoak, talde jokoak ...

Bi orduko saio motak izaten ditugu, eta, bertan bailarako edozein ikastetxeetan dabilzan neska-mutilek har dezakete parte topaketa hauetan.

Bailara gehienak izan dituzte bere egun konkretuak urtean zehar, eta aldez hurretik finkatutako ordu eta egunetan ospatu dira saioak.

## 5. EUSKAL PILOTAREN ERAKUSKETA IBILTARIA

Bere ardatz eragile bezala Euskal Pilota gaia hartuz gipuzkoar geografia korritzen ari den PILOTAREN ERAKUSKETA IBILTARIA, aportazio aberats bat gertatzen da ikuspuntu askotatik begiratuta: kultura, kirola, eta zaletasunaren ikuspegiatik.

Argi dago pilotak zeregin garrantzitsua bete dezakela euskal gizartearen izaera eta nortasunaren garapenean. Asmo horrek eraginda azken bolada honetan, euskal pilotari bultzada bat emateko asmotan, zenbait erakundeekin batera ahalegintzen ari gara.

Bere helburu nagusia aportazio kultural-didaktiko bat sortzea da.

Erakusketa ibiltari denez, bertan ikastetxe, pilota eskola, kultur etxeak eta interesa duten zaletuek, gure kirolaren historia, jatorria eta garapena, pilotari ospetsuak, pilotatoki eta pilota ezberdinen ezaugarriak e.a. ezagutu ditzaten "panel" ezberdinak antolatu dira horretarako.

Lehen esperientzia izateko interesa handia sortu du.

## X. PARTAIDETZA MOTA ERREFERENTZI Kuantitatiboak eta KUALITATIBOAK

Batez ere Gipuzkoan, kontutan izanik bi urtetako esperientzi osoa bizi izan duela, bereak eman ditu eta jarraiean balorazio orokor bat doakizue. Txosten honetan, IKASPILOTA IRAKASKUNTZAN plangintzari dagokion arloan.

Era berean, lortu ditugun emaitzak azaldu lan guzti honen ondoren bezala.

Alde batetik, plangintza honen sendotasunerako urte garrantzitsuak gertatu direlako, lehendik nahiko eskas osaturik zeuden zenbait asmo borobiltzea lortu nahi bait da; besteak beste, ikasmateriala sortzeari dagokion arloa aipa genezake.

Horregatik, bi urtetako balorapena egiterakoan guztiz emankorra eta bikaina izan dela diogu inongo zalantzarik gabe. Izanez ere, orain arte jarraitu dugun bideak edo ideiak aski garbi erakutsi digu guztiz baliagarria dela ikastetxeetako neska-mutirik pilotan jolastu, girotu eta trebatzeko.




Eta jarraitu dezakegu esanez, pilotaren aldeko apostu bat gehiago dela Euskal Herriko eta gure kulturaren nortasun agirik bereziena den Kirol hau *zaindu* eta *mimatzea* gure pilotalekuak ditugun eskoletan suspertu eta indartzeko.

Beraz, IKASPILOTAK aurrera daraman proiektu honek merezi izan du aintzakotzat hartzea.


**XEHETASUN EDO DATU OROKORRAK**

**1. IKASTETXEEKIKO HARREMANAK**

Kontutan eduki beharra, Araban egun batzuek bakarrik daramatzatela proiektuan.



**2. IRAKASLEEN PRESTAKETA**



Azpiratu prestaketa hauetan I.V.E.F. berak hurrats handia eman duela, batez ere Bizkaian.

**3. MATERIAL BERRIEN PRESTAKETA**

**MAILAZ MAILA (H.H./L.H./B.H.) IKASMATERIALA**

•PILOTA HEZIKETA TRESNA (Gida liburua). Pilotaren lehen urratsak emateko dossier pedagogikoa, ariketei buruzko grafiko eta oharrekin eratu. 3-16 urteraino fikziozko pertsonaien bidez pilotari buruzko historia modu errezez batez eskaintzea du helburutzat.

•PLANGINTZA DIDAKTIKOA

ž PILOTAK (Larruzkoak). Material berezia. Pilota 'goxoak'. Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako mailaketa osatua gelditu da, pilota motari dagokionez. Lau mailetan sailkatu ditugu, pisuz eta neurritz adin bakoitzari egokituaz.

ž PALAK (Heziketa-Palak)

A) Hasi berrientzako edo lehen urratsetako mini-pala, guttiz haurrari egokitu, hala nola: pisuz, luzeeraz eta zabaleraz.

B) Trebatutakoentzako pala.

U XISTERAK (Egokiak eta merkeak). Ohizko xaboi potearekin eginak, haur bakoitzaren gustokoak.

**OROKORREAN**


**PILOTA TAILERRETAN** (Tailer Pedagogikoak) Jolasteko tresna haien bitartez funtsezko hezkuntz esperientziak lortzeko modurik eduki dezaten.

**BIDEO DIDAKTIKOA** (Orokorrean espezialitate gutzien oinarriak eta arauak aierazten dituen bideoak)

**4. BESTE GAIAREKIKO LOTURAK** (Tailer Pedagogikoak)

Jostailuak lantzeak, pilotak, palak, xisterak ...e.a., hezkuntz prozesuaren eta hainbeste irrika sortu duten ikasgai desberdinen arteko irakaskuntzaren zati egoki bat izan da.

Garbi adierazten digu, tailer emanaldiak gero eta gorago doazela.



Datu konkretu bat emanteko:

- 1991- Bataz beste 6.000-7.000 hurrek egin zuten bere pilota.
- 1992- Bataz beste 8.000-9.000 hurrek egin zuten bere pilota.
- 1993- Bataz beste 10.000 hurrek esperientzia lortzea da gure helburua.

**KONKLUSIOA**

Ondorengo lau puntu azpimarka dezakegu:

ž Herri Kirolak eta joku tradizionalak herri bateko kulturaren zati garrantzitsu bat dira. Beraz, kpli jaiel 'enkulturazio' bide bezala erabiliak izan daitezke (herri bereko kulturaren transmizio bezala).

•Euskal Pilota euskal kulturaren transmizio bide bat da ere. Herri Kiroleko modalitate askoren praktika oso txikia dela ikusiz, eta praktika eskeintza egoki bat zabaltzea zaila dela kontutan izanik, garrantziskoa iruditzen zaigu jarraipen argia duten joku modalitateei (hauen artean pilota) lehentasuna ematea eta hauen zabalkuntza eta praktika orokorra indartzea eskolako lehen urtetik abiatuz. Eta honela, gazteetatik gure herriko sustraiekin identifikatzeko bideak erretuz.

•Euskal Pilotaren jatorria joku zuzenetan dago. Huek, Erdi Aroan Europan zehar oso ezaguna eta zabaldua izan zen

'palma' jokoarekin oso antzekoak badira ere, Euskal Herria bera da barneratu, egokitu eta gaur arte mantendu dituen. Beraz, joku zuzen hauek ezin ditugu ahaztu eta euskal pilota osatzen duten modalitate multzo zabal horren barnean onartu behar ditugu.

- Aurkezten dugun planteamentu metodologiko berri honek, era guztietako tresnei, frontoi eta joko era guztietara aplikagarria da.

## **ONDORIOAK**

Bide batez dagoen kezka kontutan izanik, une egokia dela dirudi, erantzunkizun baterakoi bat emateko.

Guzti hau gauzatzeko eta suspertzeko ekintza batzuen beharra nabaria da.

Sortu daitezkeen kezka instituzional berri hoi osaketa eta egokitzea nabarmena izango litzateke, hala nola:

- I.V.E.F. (Egitura eta antolaketa handi bat eskeini deza-  
kelakoan Hezkuntza Fisikoko irakasleengan eta sensibilizazio  
hori kontutan hartuta egokitze eta funtzionamendu operatibo  
bat martxan jartzea.)

BATZORDE BAT OSATUZ : I.V.E.F. -EUSKAL UNIBERT-  
SITATEA- HERRI KIROLEN FEDERAZIOA - KLUB ...

EGIA IZAN BEDI!